

## **ARAUTEGIA 2009**

### **FUTBOL 11**

Eusko Jaurlaritzaren Kirol Zuzendaritzak, Euskadiko Futboleko Federazioarekin lankidetzan, EUSKADIKO XXVIII. ESKOLARTEKO KIROL JOKOAK antolatuko ditu, Gasteizen, Betoñoko futbol zelaian 2009ko maiatzaren 30 eta 31, ekainaren 6an. Hona hemen arautegia:

#### **1. JOKATZEKO MODUA**

Liga sistema, itzuli bakarrekoa.

Mailak:

Infantilak: 1995 eta 1996an jaiotako mutilak.

#### **2. EKIPOEN OSAKETA**

Ekipoak honela osatuko dira: gehienez 20 jokalaria, delegatu bat eta entrenatzailea.

Aktan 18 jokalaria agertuko dira.

Ekipo bakoitzak bi kamiseta joko edukitzea beharrezkoa da, bateratasunik gerta ez dadin.

#### **3. PARTIDUAREN IRAUPENA**

Partiduak hogeita hamabostna minutuko bi zati izango ditu, hamar minutuko atsedenaldira batekin.

Partiduan zehar zazpi jokalaria ordezkatu ahal izango dira. Ligaren azken sailkapenean berdinketarik gertatu ez dadin, emaitza edozein delarik ere partiduaren amaieran ekipo bakoitzak bost penalti jaurtiko ditu.

#### **4. AZKEN SAILKAPENEAN BERDINKETA EGONEZ GERO**

##### **ERABILIKO DIREN IRIZPIDEAK**

⇒ BERDINKETA BIKOITZA EGONEZ GERO ERABILIKO DIREN  
IRIZPIDEAK

- 1º- Talde irabazleak beraien artean jokaturiko partidaren lortutako emaitza
- 2º- Talde irabazleak beraien artean jaurtitako penaltien emaitzak
- 3º- Partida denboran zehar sarturiko golen aldea.
- 4º- Partida guzietan sarturiko penaltien aldea.
- 5º- Partidaren lortutako aldeko golak guztira
- 6º- Aldeko penaltiak guztira
- 7º- Desberdintze partida

⇒ BERDINKETA HIRUKOITZA EGONEZ GERO ERABILIKO DIREN  
IRIZPIDEAK

- 1º- Berdintutako taldeen arteko golen aldea
- 2º- Berdintutako taldeen arteko penaltien aldea
- 3º- Berdintutako taldeen artean gol gehien sartu dituenak
- 4º- Berdintutako taldeen artean penalti gehien sartu dituenak
- 5º- Partida denboran zehar sarturiko gol guzietan aldea, kanporaturiko taldearen kontuan edukiz
- 6º- Penalti guzietan aldea, kanporaturiko taldearen kontuan edukiz
- 7º- Kanporaturiko taldearen kontuan edukiaz gol gehien sartu dituenak
- 8º- Kanporaturiko taldearen kontuan edukiz penalti gehien sartu dituenak
- 9º- Zozketa

## **5. BALOIA**

Baloia 5. motakoa izango da. Berotzeko balioak taldeak ekarri beharko dituzte.

## **6. FUTBOL ZELAIA**

Futbol zelaiko belarra naturala izango da.

## **7. SARIAK**

Ondorengo sariak emango dira:

Garaikur bana lehen eta bigarren sailkatutako ekipoei.

## **8. EZBEHARREN AURREAN.**

Lesio edo ezbeharrik sortu ezker nahi eta nahi ez antolakuntzak kirol eremuan izango duen arduradunarengana jo beharko da. Honek eman beharreko gainontzeko pausuak bideratuko ditu.

## **9. AZKEN OHARRA**

Arautegi honetan azaltzen ez diren kontu guztietarako, ondorengo testuak hartuko dira kontuan:

- a) 14/ 1998 LEGEA, Ekainaren 11koa, Euskadiko kirolarena.
- b) Eusko Jaurlaritzako Kultura Sailaren 1985eko uztailaren 2ko Agindua, Eskolarteko Euskadiko Jokoak arautzekoa.
- c) Eusko Jaurlaritzako Kultura eta Turismo Sailaren 1985eko uztailaren 29ko Agindua, Eskola Kiroltako lehiaketek diziplina-arauak jartzeari buruzkoa.
- d) Eusko Jaurlaritzako Kultura Sailaren 1986ko maiatzaren 20ko Agindua, Euskadiko Jokoak arautzen dituen 85.07.02-ko Agindua aldatzen duena.
- e) Eskola Kirolari buruzko uztailaren 6ko 125/2008 Dekretua.
- f) Futboleko Euskal Federazioaren Arautegian erabakitakoa.